


Mauricio Corvi Ferrariko diseinugileak Ferrari autoaren zirriborroa marraztu die eskuz

2011/07/01

Mauricio Corvi diseinugileak Italiako Ferrari marka ospetsuko automobil-modeloaren zirriborroa marraztu du eskuz Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Areto Nagusian. Diseinugile italiarra goizeko bederatzietan hasi da diseinuan lan egiten, eta ia-ia ordu eta erdi behar izan du arkatzez eta errotuladorez Ferrari autoa sortzeko. Zirriborroa egiten zuen bitartean (ordenagailu bidez egindako diseinu guztietan derrigorrean eman beharreko aurretiko urratsa da), diseinugileak paperean irudikatutakoaren berri eman die ikasle guztiei.

Zirriborroa egin ondoren, Corvi Amorebietako Automotive Intelligence Centerera (AIC) joan zen, goizeko hamabietan Maier Nazioarteko IV. Diseinu Lehiaketako sari-banaketan parte hartzera. Lehiaketako finalera, hain zuzen ere, Mondragon Unibertsitateko ikasleen sei proiektu iritsi dira: euretako bost banan-banan diseinatu dira; eta bat, taldean. Zortzi ikasle horiek Industriako Diseinu eta Produktuaren Garapenerako Ingeniaritza Graduko hirugarren maila eta Antzeko Zerbitzu eta Produktuen Diseinu Estrategikorako Masterra egiten ari dira.



Maurizio Corbi Ferrariren zirriborroarekin dago